



BIZIKLETAREN ALDEKO ESTATUKO ESTRATEGIAREN AURKEZPENA

Joan den ekainaren 7an, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak Bizikletaren aldeko Estatuko Estrategia aurkeztu zuen. Prozesu luze batean ondutako agiri bat da, eta bertan bizikleta-mugikortasunaren arloari lotutako eragile nagusiek parte hartu dute. Estrategiaren xedea da Espainiako Gobernuaren bizikleta-politika ezartzea, garraio-bide hau ikuspegi guztietatik sustatzeko: mugikortasunetik hasi eta osasunerako onuretaraino, kontuan hartuz ere aisialdirako eta kirolerako erabilera, haren balio-katea eta sektoreari dakarkion enpresen garapena dela medio, edo bizikletan funtsatutako kalitatezko turismo baterako oinarria delako.

Estrategiak bost lehentasun ditu, honela laburbildurik:

- Mugikortasun jasangarrian aurreratu, bizikletara aldaketa modal bat eginez.
- Bizitza osasungarria sustatu, mugikortasun aktiboaren bitartez.
- Zikloturismoaren ahalmena baliatu.
- Bizikleta bidezko aisialdia eta kirola sustatu eta babestu.
- Bizikleta sustatzeko Estatuaren ekintza koordinatu.

Lehentasun horiek 10 gai-eremuren bidez bultzatzen dira, eta horietatik 28 ekintza-eremu eratorzen dira, 150 ekintza zehatzetan hezurramituak. Web-orri honetan kontsulta daitezke zehazki: <https://esmovilidad.mitma.es/>

ESTRATEGIA ESTATAL POR LA BICICLETA

Como medida de actuación del Eje I (Movilidad para todos) de la Estrategia de Movilidad Segura, Sostenible y Conectada 2030

5 PRIORIDADES

PRO MOVER

- La movilidad sostenible
- La vida saludable
- El ocio y el deporte en bicicleta
- El turismo en bicicleta
- Coordinar la acción del Estado



EL EFECTO BICICLETA

Aporta valor a la sociedad y las políticas públicas

- Es movilidad
- Es salud
- Es economía
- Es sostenibilidad
- Es turismo
- Es FUTURO



efecto bicicleta

Cuando te sumas, todo rueda.



DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 4.000 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian duzue bildutako nobedade nagusien erreferentzia labur bat:



Bizikletaren eta oinezkoaren aldeko esperientzien III. jardunaldia

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Cristina Enea Fundazioa. 2021eko martxoa

Erronkak eta irakaspenak pandemiaren ondorengo mugikortasun jasangarri berrirantz izenburupean, martxoaren 29an topaketa digital bat egin zen, pandemiak bizikleten eta oinezkoen mugikortasunari ekarri dizkion aldaketak eta askotariko herrietan gai honen gainean egin diren ekintza nagusiak aztertuz.

El mantenimiento de bicicletas reconocido como cualificación profesional

Iritzi artikulua. ConBici. 2021eko ekaina

Bizikletaren mekanikari buruzko prestakuntza- eta profesionalizazio-falta arazoa izan da industria-rako eta bizikleta erabiltzen duten pertsonentzat. Bada, BOEak kualifikazio profesional berri bat argitaratu zuen 2021eko maiatzaren 29an: bizikleten eta hiri-mugikortasuneko ibilgailuen mantentze-lana, era horretan erantzun bat emanez pedaleko ibilgailuen mekanika eta mantentze-lana profesionalizatze premiarri, sektorea hazten ari baita.

ConBicik gomendatua.



Nueva Movilidad y espacio público urbano

Revista de Obras Públicas. 3626 zk. 2021eko urtarila /otsaila

Etap berri bat hasi da Bideen, Kanalen eta Portuen Ingeniari Elkargoak argitaratzen duen Revista de Obras Públicaserako. Zenbaki horrek zenbait artikulua landu ditu pandemiaren kudeaketaz, eta María José Rallori egindako elkarrizketa bat dakar, Mugikortasun Seguru, Jasangarri eta Konektatua 2030 Estrategiari lotuta; hiri-eraldaketa garrantzitsuak ere aztertzen ditu, Madrilen edo Bartzelonan, baita tamaina erdiko hirietan ere (Donostia, Gasteiz edo Pontevedra, besteak beste). Gainera, berriki egindako interbentzioak biltzen dira, artean oso mugatuak, adibidez, Madrilgo Vallecasen, edo beste hiri batzuetan, hala nola Coruña, Brasilgo São Paulo, edo Kolonbiako Rio Negro.

6 juegos de ciclismo. Entrenamiento divertido en ciclismo para niñas y niños

Danimarkako Bizikleta Elkarte.

Testuak aitek, amek eta irakasleek erraz antola ditzaketen joko batzuk azaltzen ditu. Bi urteko umeek ere parte har dezakete joko errazenetan. Joko batzuk haur bakar batekin jolas daitezke; aldiz, beste batzuk talde handia- goei zuzentzen zaizkie. Jokoek txirridularien entrenamendurako modu atsegina eta eraginkorra




Más que ZBE (Zonas de Bajas Emisiones)

Dabiltzan Hirien Sarea. 2021eko maiatza

Txostenak Oinezko Hirien Sarearen ekarpenak biltzen ditu, eta beharrezko jotzen dute "Emisio Txikiko Guneak" (ZBE) kontzeptua berrikustea. Haren desadostasuna oinarritzen da hala horietara sar daitezkeen ibilgailuen erregaiaren araberrako eremuen karakterizazioan nola horien lurralde-mugapen murriztean, besteak beste. Lanak, gainera, azaldu egiten du badaudela emisioak murrizteko eraginkor eta estrukturalagotzat jotzen dituen beste forma batzuk hiri-eremua antolatze orduan.




eskaintzen dute, eta lagundu egiten dute bizikletak erabiltzeko ohitura hartzen. Txirridularien joko hauek haurren garapenean eta autonomian laguntzen dute; izan ere, esperimintatu egiten dute, eta mugimenduaren bidez ikasten.

Guía técnica para la implementación de Zonas de Bajas Emisiones (ZBE) 

Bartzelonako Metropolialdea.
2021eko otsaila

Gida erabat praktikoa da, AMBren benetako esperientzian oinarritua: Bartzelonak, L'Hospitalet de Llobregat, Sant Adrià de Besòs, Esplugues de Llobregat eta Cornellà de Llobregateko udalekin batera, Rondas de Barcelonako emisio txikien gunea ezarri du. Gune horrek 95 km² baino gehiago du, eta Europa hegoaldeko handiena da; bertan, bi milioi inguru biztanle bizi dira. Dokumentuaren abiapuntua da zikloen eta patineten zirkulazioa modu koordinatuan arautu behar dela, eragiten dioten askotariko ordenantzak eguneratzen eta homogeneousatzen lagunduz, kontuan hartuz Norbanako Mugikortasun Ibilgailuak agertu direla. Bukatzeko, udal araudia egokitzeko gomendio sorta bat ematen da.

La ciclo-logística en España. Diagnóstico y plan de acción 

Interface Transport. 2021eko urtarrila


ECLF European Cycle Logistics Federationek hartutako definizioaren arabera, ziklo-logistikak esan nahi du bizikleta bat edo zama-bizikleta bat (2, 3 edo 4 gurpilekoa) erabiltzen duten jarduera ekonomikoak, atoiarekin edo gabe eta laguntza elektriko edo gabe. Abantailarik handiena dute, batez ere, 0 emisio edo behe emisio-eratako eta hiri-ingurune murriztutako ibilgailuei modua ematen diela banaketa eraginkor eta arin bat egiteko. Ziklo-logistikaren sektoreko eragileen multzo zabal bati egindako elkarrizketan oinarrituz, lanak epe laburreko 10 ekintzako programa bildu eta garatzen du, Espainiako haren garapena bizkortzeari begira.



Andar en Bici. Cycling / Bizikletan 

Uztaila-Abuztua

Bi argitalpen eta web orria, kaleetan, bideetan, errepideetan eta bidezidorretan bizikletan ibiltzea gustatzen zaienezat pentsatuak, lekuak, hiriak, ingurune naturalak, parkeak eta monumentu-guneak ezagutu eta deskubritzeko. Bi aldizkariaren bigarren ale honetan zikloarekin lotutako hainbat gai aurki ditzakegu, besteak beste, Peio Ruiz Cabestanyri egindako elkarrizketa sakona, Lisboan bizikleta-mugikortasunari buruzko erreportajea, Oportotik Saguntorako ibilbidea penintsulan zehar, emakumeek bizikletan izandako esperientziak.



Cómo ganar el mundo bebiendo sangre de buey 

Ander Izagirre. Libros del KO SLL.
2021

Abentura-liburu bat da; Giroari lotutako mikrokontakizunen bitartez, islatzen doa Italian zer gertatzen aritu den une bakoitzean. Kontakizunek lehendabiziko Giroa dute abiapuntu, Milan kanpoaldea hasitakoa, 127 parte-hartzaile zituela, 1909ko ekainaren 13an; bada, oso askotariko pertsonaien bitartez, gerren, diktaduren, faxismoaren, partisoen garaiko Italiako historiari erreparatzen dio, egun arte.

CICLOSFERA#36 

Udako zenbakiak Alireza Karimi Moghaddam ilustratzaile irandarraren azal artistiko bat du, Bizikletaren aldeko Estatuko Estrategia berria berrikusten du eta artea eta informazioa uztartzen ditu orrialde bakoitzean. Italiako aintzirarik handiena zeharkatuko duen txirridularitza proiektutik Frank Zapparen eta bizikleten arteko harreman bitxira edo Jean-Jacques Sempé komikigile frantsesak Raoul Taburini buruz bizikleta mekanikari frantsesari buruz idatzitako liburuari erreferentzia.

ALBISTEAK

Ikerketa-lerro bat ireki da Gipuzkoako bizikleta-mugikortasunari buruz



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko Departamentuaren eta Cristina Enea Fundazioaren arteko uneko lankidetzaren protokolo orokorra berrituz eta handituz, ikerketa-lerro bat jarri da martxan, bizikleta-mugikortasunaren askotariko arloak aztertu ahal izateko. Horretarako, Cristina Enea Fundazioak urteko ikerketa-beka bat ezarri du UPV-EHUko Gipuzkoako Campusarekin lankidetzan.

Deialdi publiko baten ondoren, aurrean Gipuzkoako hiri barneko eta inguruko txirrindularien istripuen zirkunstantziak aztertzeko ikerketa-proiektu bat hautatu da, genero- eta psikologia-ikuspegi batez egingo dena, Psikologia Fakultateko Itziar Alonsok, Miriam Garallinek, Sonia Padoanek eta Jara Mendiak osatutako lantalde batek egina.



Bizikletaren erabilerak gora izugarri



Pandemiaren kinkak aldaketak ekarri ditu Europa osoko mugikortasun-ereduetan eta, horien artean, oso aipagarria da bizikletaren erabileraren loraldia, pertsona askok desplazamenduetarako modalitate osasungarri eta higienikotzat jotzen dutelako.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako bizikleta-bideen foru-sarearen datuak oso aipagarriak dira; izan ere, 2021ean, 2 milioi joan-etorri egin ziren bizikletaz eta, beraz, % 31 hazi da aurreko urtearen aldean, ia lau halako gaudituz Europar Batasuneko multzoaren batez besteko igoera (% 8). Horretan, ezin zaio ezikusia egin udal eta foru bizikleta-bideen sarea lurralde osoan etengabe hedatu izanari, egun 399 km-ra heltzen dena.



Abian jarri dute Aragoiren Bizikletarako Estrategia



Joan den ekainaren 24an, Aragoiren Bizikletarako Estrategia aurkeztu zuten. 114 ekintza ezartzearen bitartez, bilatzen du bizikleta mugikortasun jasangarrirako, osasunerako, ekonomiarako, ingurumenerako, hezkuntzarako eta lurralde-garapenerako tresna izatea sustatzea.

Hiri-bideetako abiaduraren muga berriak



Joan den maiatzaren 11n, indarrean sartu ziren hiri-guneetan abiaduraren mugak ezartzeko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean aldaketak egiteko aurreikuspenak.

Aurrerantzean, bada, hirietako bideen abiadura-muga hauxe izango da:

20 km/o, galtzadarako eta espaloirako plataforma bakarra duten bideetan.

30 km/o, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako errei bakarra duten bideetan.

50 km/o, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako bi errei edo gehiago dituzten bideetan.

Emisio Txikiko Guneak

Oraindik orain onartutako Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketari buruzko Legeak preskripzio sorta bat ezarri du emisiorik gabeko mugikortasunerantz trantsizio bat egiteko. Bada, ezartzen du 50.000 biztanletik gorako udalerriek eta uharte-lurraldeek 2023 baino lehen hiri-mugikortasunerako planak erabaki behar dituztela, mugikortasunetik sortutako emisioak murrizteko balio duten neurriak sartuz, tartean direla, besteak beste, emisio txikiko guneak, 2023 baino lehen.

Emisio txikiko gune bat geografiaz mugatutako eremu bat da, eta bilatzen du oso kutsagarriak diren ibilgailu jakin batzuk (autoak, kamioiak, motorrak) bertara ez sartzea edo era murriztuan sartzea. Aire-kutsadura murrizteko asmoz, kasu batzuetan, bakarrik baimentzen da zero emisioa duten ibilgailuak sartzea, adibidez, ibilgailu elektriko hutsak, edo emisio gutxiak, hala nola hibrido normalak edo entxufagarriak.

AGENDA

Velo-City 2021. Lisboa



Velo-Cityren urteko konferentzia munduko erreferentzia bat da hiriko txirrindularitzaren sektorean. Europako Txirrindularien Federazioak (ECFk) antolatuta, konferentziak askotariko txirrindularitza-arlo biltzen ditu: hari lotutako azpiegiturak, berrikuntzak, segurtasuna eta abar, baita eremu horietan gertatzen ari diren gizarte- eta kultura-aldaketan berri eman ere. 2021eko VeloCity Lisboan egingo da, irailaren 6tik 7ra.



CYCLE DIVERSITY
LISBOA 6-9 SEPTIEMBRE 2021

II Hiriko Bizikleta Topaketa eta Bikefriendly 2021 Sariak. Malaga



Uztailaren 8an, bigarren Hiriko Bizikleta Topaketa egin zen. Jardunaldi teknikoa, hauexei zuzendua: Bizikletaren aldeko Hirien Sareari atxikitako hiri eta lurraldeetako ordezkariak, mugikortasunaren arloko profesionalak, txirrindulari-kolektiboak eta, oro har, jendea; bertan, gogoeta egingo da hiri-inguruneetako bizikletari buruzko gaurkotasuneko askotariko gaiez.

Sariak Bizikletaren aldeko Hirien Sareari (RCxB) atxikitako administrazioei Bikefriendlyk aitortzen dien errekonozimendua dira, lurraldeetan bizikleta egunero erabiltzea sustatu eta erraztera bideratutako proiektu, ekimen edo/eta ekintza onenak bul-tzatzearen. Gainera, oraingoan, COVID-19ak eragin duen kinka berezi hau dela eta, baloratu egin da pandemiak sortutako ondorioetara lurraldeak laster eta eraginkortasunez egokitu izana.



- MÁLAGA 2021 -

CICLOBCN21 - Hirietan eta lurraldean barrena pedalei eragiten. Bartzelona



2021eko urriaren 5etik 10era, Bartzelonak bizikletari buruzko hiru kongresu bilduko ditu:

- EuroVelo eta Zikloturismo Konferentzia 2021. Mundu osoan zikloturismoaz egiten den kongresu garrantzitsua
- XVII. *La bicicleta y la ciudad* Iberiar Kongresua. Bertan, bizikletari lotutako Espainiako eta Portugalgo berritasunak eta esperientziak aurkezten dira.
- VII. Kataluniako Bizikletaren Nazioarteko Kongresua. Bizikletaren munduari lotutako berritasunak aurkezteko foro katalan nagusia.

CICLOBCN21

Barcelona, 5-10 octubre 2021


Europako Mugikortasunaren Astea 2021



2021eko Europako Mugikortasunaren Astea irailaren 16tik 22ra egingo da. Europako Batzordeak hiri-mugikortasun jasangarriaren alde egiten duen sentsibilizazio-kanpaina nagusia da. Jokabide-aldaketa sustatzen du mugikortasun aktiboaren, garraio publikoaren eta beste garraio-soluzio garbi eta adimentsuen alde.

Aurten, EMAREN gaia *Mugikortasun jasangarria, osasungarria eta segurua* da, goiburutzat hartuz *Zaindu osasuna, mugitu zaitetz modu jasangarrian*. Europako Batzordeak nahi izan du arreta osasunari jartzea, hala gorputzekoari nolako burukoari, gure udalerrietan era jasangarrian mugitzeko moduei loturik.





Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunen espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Gogorazten dizuegu posible dela Ziklotekako espazio fisikora bertaratzea dokumentuak kontsultatzeko eta maileguan hartzeko; indarrean dagoen COVID protokoloa aplikatuko da

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia

Astelehenetik larunbatera: 9:30 -13:30 / 15:00 -19:00 (udako ordutegian 20:00ak arte)
Igande eta jaiegunetan: 10:00 -13:30



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro